

III. Duatloirako denok



prest!

drogeteniturri

TOKIKOM

Ermua eta Mallabiko aldizkaria 199. alea 2012ko martxo

Askotan, **konponketa** erantzun egokiena da
Konfiantza eta bermea, gure lanaren gidari

4 x 4



Kamioiak



Tailerra

- 40 urte baino gehiagoko esperientzia dugu ibilgailuen osagaien erreparazioan.
- Gure bezeroen tailerretan jasotzen ditugu piezak, erreparatu ondoren berriz eurei eramateko.



Gure instalazioetan, enpresen ibilgailuak egokitasunez jaso eta kudeatzeko aukera dugu

Deitu edo etorri
eta galdetu

Kalitate-prezio erlazio bikaina

gure produktu eta zerbitzuetan



**AUTO-REPARACIONES
AREITIO, S.L.** **Etab.**

634 errepide nazionala,- 69,5 km.a, Areitio Gaina 15. 48269 - Mallabia

Bulegoa: 943 17 51 00 / Tailerra: 943 17 08 06 / Fax: 943 17 20 15

www.areiotor.com / administracion@areiotor.com / areitio@areiotor.com

**Ermuan,
Maiatzaren 11n**

Antolatzailea:  **Euskal
Birusa
Elkartea**

**Pirritx, Porrotx
eta MaRiMotots**

ARGITARATZAILEA:

Euskal Birusa
Elkarte Kulturala.

HELBIDEA:

Erdikokale 2, 1. (Elexoste)
247 posta-kutxa
943 17 93 50.

drogeten@gmail.com
www.euskalbirusa.org

ERREDAKZIO TALDEA:

Alazne Aiestaran, Igone Amesti, Ibaia Azagirre, Estibalitz González, Asier Ibaibarriaga, Ane Saénz eta Dorleta Vidal.

KOORDINAZIOA**ETA MAKETAZIOA:**

Dorleta Vidal.

HIZKUNTZ ARDURADUNA:

Alazne Aiestaran.

AZALEKO ARGAZKIA:

Dorleta Vidal.

LAGUNTZAILEAK:

Eneritz Aranburu, Aitor Cid, Leire Elustondo, Eskarmiento, Endika Fernandez, Fede Iturriagagoitia, Patxi López, Nora Mateos, Iván Mesonero, Pello Mugarza, Valentin Mugarza eta Iván Pérez.

ARGAZKIAK:

Igone Amesti, Txabi Arnal, Artarra, Ibaia Azagirre, Damudot, Doctor Deseo, Eneritz Aranburu, Eskarmiento, Estibalitz González, Iván Mesonero, Kaotiko, Valentin Mugarza, Ostots Triatloi Kirol Kluba, Shinova, Vertigo Rock eta Dorleta Vidal.

PUBLIZITATEA:

688 63 28 76.

INPRIMATEGIA:

Gertu Koop. (Oñati).

BANAKETA:

Tamara Lorente, Nora Mateos eta Olatz Lolola.

TIRADA:

2.300 ale.

ISSN:

11 33-973X.

LEGE GORDAILUA:

SS-21 3/94.

Drogeteniturrrik ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako iritzien erantzukizunik.

Bertoko hegaztiak

...Fede Iturriagagoitiak batuta

EULI-TXORIA *Papamoscas gris Muscicapa striata*



Txori diskretua, hauts koloreko lumatza kolorekoa, hosto artean ezkutatzeko ezinbesteko dena.

Burua du deigarriagoa, berau alde batetik bestera zeharkatzen dioten marra zuriei esker. Tente darama beti, euliren bat noiz bistaratuko adi. Eta euliok airean doazela, kale egin barik harrapatzen ditu, airezko txiribuelta edo akrobaziaren bat egin ostean. Ikustekotan, sagar sasoiari sagastietan, hantxe topatzen ditu-eta zilbota betetzeko laineko eltxoak. 'Pinpina' ere deitzen zaio, egiten duen "pin-pin" soinuagatik. Hildakoan, lumatu ezkerreko, barru koipetsua du, olioiz betez norberaren atzamarrak: Afrikaranzko bidaiarako potinduta joatea hil ala biziko gauza da hegazti bakarzale honentzako.

Hilabete honetan...

MUSIKA TALDE-TXOKO4	BOTEPRONTOAN 16
Eskarmiento	Valentin Mugarza
ELKARRIZKETA5-7	KIROLZALE 17
Ekaitz eta Jokin: III. Duatloia	Libe eta Ainhoa mailu-jaurtiketan
MALLABIAN ZER?8-9	IRITZIA 18
Ibaia eta Igone: Truke azoka	Eta punto...
ELKARRIZKETA..... 10-11	SALEROSKETAK 19
Vertigo Rockeko antolatzaileak	Saldu, erosi edo agurtu
MOTZEAN 12-13	ANTZINAKOAK.....20
'Gurasolagun'	Ermuko eta Mallabiko argazkiak
ERMUAN ZER? 14-15	KALEKO INKESTA21
Jostailuzko 3.000 kamioi jasoko dira	Ermuko eta Mallabiko jendearen iritziak
	AGENDA22
	Apirileko agenda

Ondorengo erakundeek diruz lagundutako aldizkaria:



AYUNTAMIENTO DE LA VILLA DE ERMUA
ERMUA HIRIKO UDALA



MALLABIKO UDALA



Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Eskarmiento

1 **Sorrera.** Taldea aspaldi sortu zen eta hasieratik honen atzean anaia Mario eta ni, Javi, egon gara. Taldean 3 izan gara beti, baina 3. taldekide hori denborarekin aldatzen joan da. Auzoko lagunen artean sortu genuen taldea eta askotan zerotik hasteko aukera izan dugun arren, ondo pasatzen jarraitzen dugun bitartean, Eskarmientorekin jarraituko dugu.

2 **Izena.** Nire ideia izan zen (Javi), Eskorbuto musika taldearen antza zuelako eta garai horretan talde horrek eragin handia zuelako nigan. Gaur egun gure musikak ez dauka Eskorbutoaren musikarekin zerikusirik, nahiz eta noizean behin euren bertsoak jo ditugun.

3 **Kideak.** 2008tik aurrera Gorkak, Mariok eta hirurok osatzen dugu taldea. Gorkak bateria jotzen du, Mariok gitarra eta nik baxua. Era berean, Mario eta biok ahotza jartzen dugu. Taldeak 4 gitarrista izan ditu bere sorreratik.

4 **Estiloa.** Punk-rocka egiten dugula esango nuke. Hala ere, ez zaizkigu inoiz etiketak gustatu.

5 **Abestiak.** Guk sortzen ditugure abestiak, nahiz eta lehen esan dudan moduan, bertso batzuk ere jotzen ditugun. Egu-



nerokotasuneko gauzak aipatzen ditugu letretan, gauza eta pelikula beldurgarriak, neskak, amodioa, desamodioa, Ramonesekin zerikusia duten abestiak, 'teenager' abestiak (nahiz eta hain gazteak ez garen)... Ez gara idazle apartak, beraz, egiten dugun musikarekin hoberen geratzen diren letrak egiten ditugu.

6 **Entseguak.** Hainbat lokaletan egon eta gero, 1999tik Eibarko Legarreko lokaletan entseatzen dugu. Astegunetan biltzen gara, gauetan, hirurok ahal dugunean.

7 **Azken kontzertua?** laz ezin izan genuen jo eta azken kontzertua Eibarko Ryder tabernan edo Barakaldon eman genuen, ez dut gogoratzen. Hala ere, entsea-

tzen jarraitu dugu eta gaur egun, bi aste lehenago abisatuta, kontzertua eskaintzeko prest egon gaitzke.

8 **Diskorik, maketarik...** 1999an maketa atera genuen. Ordenagailu batekin grabatu genuen, gure lokalean. 2001ean, berriz, Errenteriako Studio 77n 'Castle Rock' CDa grabatu genuen, J. Reboredo eta gure artean ekoiztita (eskarmiento@hotmail.com helbidean eros daiteke). 2006an lanari ekin genion berriro ere eta abesti batzuk estudioan grabatu ditugu, baina gauzak lasai-lasai hartzen ditugu.

9 **Kontaktua** eskarmiento@hotmail.com, weare138.6@gmail.com edo www.myspace.com/eskarmiento

san antonio OKINDEGIA
GOZOTEGIA

Izelaieta, 40 Tel. 17 00 63
Zubiaurre, 12 Tel. 17 38 40

AIZ

AIZ
Garraioak, S.L.

☎ 636 95 83 39 (JULEN)

ZABAL

ERMUA

IKASTOLA
38 urte Ermua euskalduntzen



**Ekaitz Arronategi, Ermuko duatloiko zuzendaria,
eta Jokin Txapartegi, 'Duatloi txiki'ko arduraduna:**

“Gure asmoa Euskadiko duatloi txapelketa antolatzea da”

Ostots Triatloi Kirol Klubak III. Duatloia antolatu du martxoaren 24rako, larunbata. Antolatzaileek diotez, Manolo Méndezek eta Moises Uriartek bidea urratu zuten Ermuan duela 15 bat urte, baina gaur egun duatloi zaleak azkar asko ugirituz doaz. Horren adierazle, Ostots taldeak aurtan jaso dituen 9 kide berriak (tartean neska bakarra). 100 boluntario baino gehiagoren laguntza izango dute lasterketa egunean eta duatloia bilakaera oso positiboa denez, erronka berriei heltzeko gogotsu daude, hala nola umeentzako duatloi eskola sortzeko.

- Zer dela eta bururatu zitzaion Ostots Triatloi Kirol Klubari 2010ean duatloia antolatzea?

Duatloiak eta triatloiak gustatzen zaizkigu taldekoei eta horiek sustatu nahi genituen. Ez dira futbola bezain kirol ezagunak eta herrira gerturatu nahi genituen. Garai horretan lagun taldea baino ez ginen, eta lehen duatloia antolatu ahal izateko taldea ofizialki sortu behar izan genuen, Ostots Kluba.

- Zenbat lagun behar dira duatloia aurrera atera ahal izateko?

Bakarrik Lasterketa egunean 100 bat lagun behar ditugu, parte-hartzaile eta zirkuituaren segurtasuna bermatzeko, hornidura-gunee-tarako, sarietarako... Kopuru handia da oso, bai biltzeko eta baita kudeatzeko ere.

- Jendea inplikatzearre da?

Hasieran, batez ere, kostatu egiten da. Guk beharrezko ikusten dugun kopurura heltzea zaila izaten da eta azken orduan ibiltzen gara batzuetan. Lasterketa eguna baino lehen zenbat lagun ditugun jakin beharko genuke, baina batzuek ez dute azken momentura arte konprometitu nahi.

- Aurtengoa hirugarrena izango da. Nola baloratzen dituzue aurreko edizioak?

Balorazio positiboa egiten dugu. Antolaketari dagokionez, aurtengoan esperientzia handiagoa dugu, lan-



talde handiagoa eta jendea gehiago inplikatu dela esan dezakegu, hobera egin dugu. Kirolari kopuruari dagokionez, lehenengo urtean 150 lagunek eman zuten izena eta ia 160k. Aurten, beraz, beste hamar gehiago jaso beharko genituzke, ezta?

- Taldekoek ere Ermuko duatloian parte hartzen duzue?

Asmoa hori da, baina horretarako laguntzaile asko beharko genituzke. Aurten 5 kidek parte hartzea espero dugu!

- Duatloia 17.00etan hasiko da. Zein izango da ibilbidea?

Lehen lasterketak 5 kilometro ditu eta hiri barruan egingo da. Jarraian 20 kilometro egin beharko dira bizikletarekin: Ermua - Mallabia - San Pedro - Hambre industriagunea - Ermua (10 kilometroko bi itzuli). Azke-

nik, 2,5 kilometro oinez Ermuko kaleetan barrena.

- Umeentzako duatloia, berriz, 12.00etan hasiko da. Zertan datza?

Egunean bertan izena ematen duten umeak hiru kategoriatan banatuko ditugu eta eurei egokitutako ibilbidea egin beharko dute. Iaz 40-50 ume egon ziren, oso kopuru polita da, ea aurten gehiago datozen!

- Zein da lasterketa honen helburua?

Umeen artean duatloia eta triatloia sustatzea. Gainera, futbol eta pilota eskolak dau den moduan, duatloi eskola sortzea gustatuko litzaiguke Ermuan. Entrenatzaileak eta bitartekoak behar dira, hemen bizikletan ibiltzeko arazo handiak ditugulako eta umeen segurtasuna bermatu beharko genukeelako.

- Momentuz 24ko zitari helduko diozue. Dena prest?

Gauza batzuk azken aste-
ra arte ezin ditugu egin, baina azaroaren bueltan hasi

ginen prestaketa lanetan. Baimen administratiboak eskatu behar dira Eusko Jaur-laritzan, Udalean, Udaltzaingoa, Ertzaintzan, Euskadiko Triatloi Federazioan... eta horrez gain gure antolaketa lanak daude: zirkuituak, boxak, duatloi txikia... hamaika gauza dago!

- Lan horrek guztiak merezi du?

Bai, duda barik! Herrian duatloia ikustea asko gustatzen zaigu eta bukatutakoan asebeteta sentitzen gara. Ekaitzen kasua ezberdina da, bera lasterketako zuzendaria delako eta hobetzeko mila gauza ikusten dituelako. Duatloia bukatu eta egun batzuk pasatzen direnean berak ere sentsazio bera du.

- Zerk bereizten du Ermuko duatloia gainontzekoetatik?

Alde batetik, etorriko diren kirolarien beharrei erreparatzen diegu hasieratik, hornidura eta sarietan, esaterako. Jasotzen dugun dirua honetan inbertitzen dugu, ez

“Etorriko diren kirolarien beharrei erreparatzen diegu hasieratik”

MENDIOLA
Restaurante - Jatetxea

Erdikokale, 19
Telefonoa 943 17 22 43

48260 ERMUA
(Bizkaia)

KRABI

Ileapaindegia
Estetika

Tel: 943 03 17 56

Diputazio, 5

ERMUA

daukagu irabazteko asmorik. Bestetik, segurtasuna bermatu nahi dugu, lasterketa segurua nahi dugu, eta horregatik iaz ibilbidea aldatzea erabaki genuen (lehenengo urtean Matienako errotonda berriraino joan behar izan zuten kirolariak). Gure alde daukagu bizikletako ibilbidearen %30 trafikora itxita dagoela eta korrika egiten den bide osoa ere, jakina. Gernikan, esaterako, Nazioarteko duatloia egiten da eta, atzean geratzen diren kirolariak, kotxe artean ibili behar dira.

- **Nazioarteko duatloia antolatu nahiko zenukete Ermuan ere?**

Gure asmoa Euskadiko txapelketa egitea da. Horrek zer eskatzen duen? Ezer ez. Gure duatloia bukatuta koan Federazioko epaileek balorazioa egiten dute urtero. 2010etik 2011ra asko hobeto genuen eta aurten jauzi kualitatiboa emango dugula espero dugu. Gauzak behar den bezala antolatze-

ko gai zarela ikusi behar du Federazioak eta horren araberba baimena ematen dute.

- **Diru-laguntzarik jaso duzue?**

Bai, Udaletik jaso dugu diru-laguntza, baina malabariak egin behar izan ditugu. Babesle pribatuekin arazo handiak izan ditugu aurten. Gauzak dauden moduan egonda, eskatze hutsa ere kosta egiten da. Agirre Kiro-lak eta Orbeak asko laguntzen digute, proba janzten, batez ere: banderatoak, arkuak, puzgarriak, barandak... eta gainera Orbeak gu laguntzeko taldetxoak ekartzen digu, dozena bat lagun edo.

- **San Pelaioako parkean burutu zen lehen edizioa. Zergatik aldatu zenuten iaz plazara?**

Bi arrazoi nagusi egon ziren. Alde batetik, espazioak parte-hartzaile kopurua finkatzen duelako eta San Pelaion 180 kirolari bakarrik hartu ahal genituen; plazan, berriz, 240 bildu daitezke.

“Kirol honetan ez dizu inork esango balio duzun edo ez”

Bestalde, ikuskizuna herrira hurbildu nahi genuen, tabernan tragoa hartzen ari direnak ere hurbil daitezten.

- **Kaleetako eta plazako eguneroko erritmoa aldatzen duzue. Nola hartzen du jendeak?**

Orokorrean ondo, baina kolaboratzea edo, behintzat, oztoporik ez ipintzea eskatuko genieke, pazientzia izatea.

- **Duatloia modan dago?**

Bai, eta gero eta gehiago: urtero-urtero duatloi eta triatloi lizentziak esponentzialki igotzen dira Euskal Herri eta Estatu mailan ere. Gizartearen edo gazte jendearen ohiturak aldatzen doazela ematen du, gaur egun jende asko ikusten baita kaleretik korrika eta errepide eta mendi bizikletan. Baina orokorragoa ere badela uste du-

gu, kirolarekin gertatzen ari den zerbait da.

- **Zer ematen dio kirol honek kirolariari?**

Kirol gogorra dela ematen du eta erronka puntua du. Ez dizu inork esango balio duzun edo ez, norberak ikusi behar du noraino hel daitekeen. Askok irabazteko asmoarekin hartzen dute parte lasterketetan, profesionalak esaterako; beste batzuek norberaren marka eta lagunena hausteko hartzen dute parte eta azkenik euren indarrak probatu nahi dituztenak daude, ea bukatzeko gai diren ikusi nahi dutenak. Horiek dira agian gehien disfrutatzen dutenak.

- **Neska asko aritzen da duatloian?**

Aurten Ermuan lan egiten duen Mungiako neska batek eman du izena taldean eta aurretik ere beste neska bat izan genuen. Lasterketetan gero eta gehiago daude, baina mutilekin alderatuta... kopuru minimoa da. Duela aste batzuk Eibarko duatloian dozena bat neska egon ziren eta 180 bat mutil, pentsa!

- **Zer egin behar da Ostotseko kide izateko?**

Guregana hurbildu, besterik ez. Gure asmoa gero eta lagun gehiago biltzea da. Gure webgunean (ermukostotstk2.blogspot.com) informazioa ikus daiteke eta izena ematen duen jendea duatloian laguntzeko eskatzen diogu bakarrik.

Dorleta Vidal



ONTINDIA HARATEGIA

Etxean egindako odoloste eta txorizoak

Kantabria zeharbidea 1
48260 - ERMUA

Tel. 943 10 85 44
Mug. 678 64 85 41

Descubrete

- Teak eta kafeak.
- Belgiako txokolata.
- Eguneko tea dagarrri
- Osagarriak: teontziak, katiluak, infusoreak....

Oparitzeko neurria egindako poltsak!

Probaleku 4 bis, 943 03 15 81

Ibaia Azagirre eta Igone Amesti,
maiatzan 12ko Truke Azokian antolatzailek:

“Honetatik ez dogu inok irabazirik etaratzetik nahi”

- *Hamabostaldi kulturalaren barruan Truke Azoka antolatu dozue. Zer dala eta?*

Behin alkarraz berbetan, etxien alperriko gauza asko ditudugule aittatu gendun. Gauza asko gordetzen ditudugu, penie emoten doskuleko holakuetaz desegittiek. Baina azkenien, tonto tontora, gauzatxuek gorde ta gorde besterik ez dogu eitten, konturatu barik, beste nonork horretxei usue emon al deusela. Holantxik, truke azokatxo bat antolatzie pentsau gendun.

- *Lehen aldixez da herriaren holako zeozer antolatu dana?*

Ez. Badie urte batzuk, Herriko landan antolatu zala. Bertaratu ginenak, erabiltzen ez genittunek eruen eta trukatu genduzan. Gaztetxuek ixen arren, gusture hartu gendun parte eta oroitzen ona daukagu.

- *Antolaketa lana oso gaxa da?*

Ez, ez. Oso simple da! Guk ideie besterik ez dogu bota. Kartel sinple batzuk atara eta zabalkundie emongo deusegu. Hortik aurrera, egunien bertan kabaietiek presatu eta gainontzeko dana, parte hartzaileen esku gertzen da.

- *Zer nolako gauzak eruen leikez truke azokara?*

Edozer. Biher edo erabiltzen ez dozune eruen eta erabilliko dozun horrekin trukatzie besterik ez da! Zelako gauzak? Esandako moduen, danetarik erun leike: erropak, oinetakuek, liburuek, diskuek, alajak, altzarixek, adornuek, kuadruek, sukalde tresnerixie... edozer gauza!

- *Dana trukian bidez eingo da, edo gauzak saltzen eongo die?*

Beno, guk printzipioz, sustatu nahi dogune zera da: diru-bako egune. Gauzak trukatzeko aukerie eukitzie, eta hori posible ez bada, parte

hartzaileen eskure egongo da debalde emotie edo prezio sinboliko baten eskeintzie. Oin, guk uste, bertara eruten dien gauzak, ez baditudugu nahi... zertarako saldu, ezta? Honetatik ez dogu inok irabazirik etaratzetik nahi.

- *Nun eta zer orduten izenago da?*

Hamabostaldi kulturala dala-eta, maiatzan 12xen eingo dogu, arratsaldeko lauretatik aurrera. Eguraldi ona eginez gero, plazan egingo da eta bestela, elizpien.

- *Izena emotie beharrezkue da?*

Ez, ez da beharrezkue. Hala da be, parte hartzie nahi dabenai, eskertuko dotzegu alde aurretik guri jakinaraztie, biher dan espazixo eta mahai kopuruek antolatzeko. Baina azpimarratu nahi dogu, azkenengo momentuen parte hartzera animatzen danak be, lekue eukiko dabela!

- *Zeozer gehitzie nahi dozue?*

Hemendik Mallabi, zein inguruko gazte zein heldu danak bertan parte hartzera gonbidatzen doguz. la danon artien zeozer politte eitten dogun!



IZOTZ
IZOZTUAK

ERMUA
Merkatua
54-55 postuak
943174101

ARRASATE
Merkatua
943770598

ELUR
ESTETIKA-EDERGINTZA

- Depilazioa
- Elektrologia
- Gorputz eta Aurpegirako tratamenduak
- Masajeak
- Pedikura
- Manikura (parafinarekin)
- Solariuma
- Laser depilazioan espezializatuak
- Kontsulta mediko-estetikoa

Aldapa 1 **943 17 60 52**

ILEAPAINDEGIA

Izaskun

Goienkale, 9 (Plaza San Martin)
48260 Ermua Bizkaia
Tel. 943.17 66 90

ILEAPAINDEGIA

ORRAITTIOK PEGATINA LEHIAKETIE ANTOLATU DAU

Orraittio Euskara elkartiek euskararen erabilera sustatzeko Pegatina lehiaketa bat antolatu dau. Bertan Orraittio izena eta bakoitzak nahi daben euskeraren aldeko esaldi edo eslogana agertu biherko da. Apirilaren 20rarte jasoko die lanak liburutegixen edo kulturetxea.mallabi@bizkaia.net helbide elektronikuen. 100 euroko sarixe izango dau irabazliek eta horrez gain, 14 urtetik beherakuen artien bi mp4 zozketatuko die. Interesa daukenak oinarri eta baldintzak Udal Liburutegixen eskatu leikez.

FUTBOL TALDERAKO BAZKIDE KANPAINA MARTXAN

Mallabia F.T. taldeak bazkideiek zabaltzeko kanpainie jarri dau martxan. Azken urtietan egindako denboraldi onek kategorixaz igotzen jutie ahalbidetu deutse taldiai. Gehituz doiezan gastuei aurre egittek laguntzie eskatzen deusie oin jentiai. Horretarako bazkide eginez lagundu nahi dabenak, Carlos edo taldianganana jo daixela informazio bille.

MARTXAN DA BIHARKO IZARRAK TXAPELKETA

Biharko Izarrak txapelketaren IX. Ediziñue otsailan 23en hasi zan. Bertan, hogeitalau gazte pilotarik emon dabe izena; Betiko lez, pilotarixek bi multzotan banatute dauz, alde batetik atzelarixek eta bestetik aurrelarixek. Holan, atzelari danak, aurrelari danekin bikote eginez jokatu dabe. Azkenik, geratuko dien lau bikote onenek finalerdiketarako sailkatuko die. Finalerdiko eta finalan datak, zehaztu barik egon arren, honetxek, ekainien jokatuko die. Hurrengo partidak: apirilán 4, 9, 12, 14, 19 eta 26xen. Maiatzan 3, 10, 17 eta 24.

MAIATZEKO HAMABOSTALDI KULTURALA

Herriko hainbat talde, baitte udala be, hasi die maiatzeko hamabostaldi kulturalaren prestaketiaz. Pare bat batzar egin ostien, nahiz eta ondiokan egitarau guztiz zehaztute egon ez, apurke apurke ekintzak finkatzen hasi die:

- Maiatzan 11an kantu poteue, koroko neska gaztien parte hartziakin.
- Maiatzan 12xen, 16.00etatik aurrera Truke Azoka
- Maiatzan 13en, Egaña, Zubeldia Arzallus, Lujanbio, Iturriaga eta Beñaten eskutik bertso saieue.
- Maiatzan 19xen, arratsaldeko 16.00etan, ume zein helduentzat mendi lasterketa-martxa. Eta Iluntzixen Jasokunde eta Mendibil abesbatzen kontzertue.
- Maiatzan 20xen, goiz osuen ziber azokie, 12.00xetan dantzarixek eta 12.30xetan aizkolarixek.
- Maiatzan 21en, futbito txapelketie.

MALLABITARRAK NESKEN PALETA-GOMA FINALIEN

Martxuan 3en jokatu zan pilotalekuen Euskal Herriko Nesken Paleta - Goma Irekian Txapelketako finala. Bigarren mailako partiduo



oso parekatue jokatu eben; Amaia Araiztegi mallabitarrak Malen Lejonagoitiakin batera 29-30 galdu eban Leire Etxaniz eta Gaxi Gallastegiren kontra. Lehenengo mailako finalien Mallabiko Itsaso Praderak Laura Saezekin 30-17 irabazi eutsen Amaia Irazustabarrena eta Ariane Arrietari. Jende mordue batu zan frontoien eta giro ederra egon zan.

Igone Amesti eta Ibaia Azagirre

MUGA **KIROLAK**

San Pelaio 4A behea
Telefona: 17 64 77
ERMUA

ARRIETA CORDEVI

Elektratresnak,
telebistak, bideoak,
musika aparatuak...

...prezio eta kalitate
ezin hobean.

VI. Centenario Kalea, 5 ERMUA

MALLABIKO Herriko taberna

Eguneko platera (3€),
menua, bokatak,
plater konbinatuak,
pintxoak, kazolak,
arraina eta txuleta
parrillan (enkarguz)...

EUSKAL PRESO
ETA IHESLARIA

ETXERA

943 174 952
(asteartetan itxita)

Pub Dakota

Probaleku, z/g
Ermua (Bizkaia)
dakotaermua@hotmail.com

ELEKTRAGAILUENTZAKO ZERBITZU TEKNIKO

EGAÑA

ALDAGAILUAK

GARBIGAILUAK - SUKALDEAK - HOZKAILUAK
LEHORGAILUAK ETA BEROGAILU ELEKTRIKOAK

DIPUTAZIOA 7 # TLF. 943 17 66 08 # ERMUA
BIDEBARRIETA 33 # TLF. 943 70 28 33 # EIBAR

Vertigo Rockeko antolatzaileak:

“Inguruko herrien artean ezaguna da jada Vertigo Rock”

Maiatzaren 19an Vertigo Rock jaialdiaren 6. edizioa burutuko da Ermuan. Bi hilabete eskas geratzen dira eta antolatzaileek herrian joko duten taldeekin hitzordua egina daukate dagoeneko, izan ere azaroan hasi ziren honetan lanean.

- Zeintzuk taldek hartuko dute parte gertu dugun edizio honetan?

Sin, Kaotiko, Zain, Komando Antilimako, Damudot, Actitud eta Shinova taldeek eta oraindik zehaztu gabe daukagun beste talde batek.

- Zein da aurtengo egitaraua?

Eguerditik aurrera plazako txosna zabalik egongo da, eta arratsaldeko 16.45ean kaleko kontzertuak hasiko dira. Horiek bukatutakoan, 21.00ak aldera, plazako oholtzan hasiko da musika.

- Musikaz gain, beste ekimenik antolatzeko asmorik duzue?

Beti bezala gure txosna plazan egongo da, eta ziur

aski graffiti eta argazki erakusketak ere izango dira.

- Berrikuntzarik ba al dago iazko Vertigo Rock-ekin alderatuta?

Egia esanda... ez da ezer berririk egongo, baina agian kamiseta berriak salduko ditugu, dena ondo badoa.

- Kontzertuak larunbatean burutzen diren arren, iaz Vertigo Rock-en aurkezpena ostiralean egin zen, hau da, bezperan. Orduan bereziki sortutako taldeak, 'Beti txarto' taldeak hain zuzen ere, kontzertutxo eskaini zuen Zappa tabernan. Aurten ere antzerako zerbaitegiteko asmoa duzue?

Bai horri eustea da gure asmoa, baina oraindik ez du-

gu pentsatu kontzertua non egingo den. Hala ere, egitekotan, Betiondoko Beti-txartoko lokaletan entseatzen duten musikari gehienek bizpahiru abesti joko dituzte aurten ere.

- Kartela osatzen duten taldeek ere Ermuan aurretik izandakoak dira?

Aurten jotzen duten kanpoko taldeek ez zuten iaz jo, baina egia da beste edizio batzuetan parte hartu duten bi talde ermuar ba-

daudela tartean. Izan ere, hainbat ediziotan talde batzuk errepikatu egin dute, Ermuko beste talde askok ez dutelako kontzerturik ematen.

- Zein da musika taldeak aukeratzeko erabiltzen duzuen irizpidea?

Lehenik eta behin daukagun diru kopuruari erreparatzen diogu. Hortik aurrera, Ermuko taldeekin hitz egiten dugu, jaialdian parte hartzeko prest dauden gal-



ARTARRAI

OPARI DENDA



Goienkale, 5 • Telf. 943 17 44 19
ERMUA



D. ARRAL 97 S.L.
Tfno. 943 176 075 - Fax: 943 170 892
arral@arral97.com
www.arral97.com

Ardo banatzailea:

Luis Cañas
Cantosán Verdejo
Viña 65 Verdejo
Amaren
Añada Real
Cava Oriol Rosell
Nitida
Montepinos



detzeko. Horren ostean, rock-metal musika egiten duten eta gure gustukoak diren taldeekin harremanetan jartzen gara.

- Prozesu luzea ematen du. Noiz hasi zarete aurtengo edizioa prestatzen?

lazko azaroan.

- Zeintzuk lan egin behar dira horrelako ekitaldia antolatzeko?

Egia esanda gauza asko lotu behar dira: taldeentzako catering-a, txosnak, tabernen diru-laguntzak kudeatu, graffitiak, musika taldeko kideekin harremanetan jarri...

- Zenbat lagunek hartzen duzue parte antolaketan eta nola banatzen dituzue zereginak?

Aurten 15 lagunek taldetxo batek ekin dio antolaketari, eta horiek lan-talde ezberdinetan banatuta daude.

- Sei urtez antolatu duzue ekitaldia dagoeneko. Hasieratik gaur egunera arte, aldaketak izan dituzue?

Idea bat egiteko: duela sei urte hasi ginen eta ordutik 7



“Maiatzaren 19an egun polita igaroko dugu rock musikarekin... eta gainera dohainik!”

pertsonek bakarrik jarraitzen dugu. Urte hauetan lagun asko etorri eta joan dira, baina zorionez aurten 5 kide berri etorri dira eta horrek asko la-

gundu digu. Argi utzi nahi dugu antolaketan parte hartu nahi dutenek atea irekita dituztela. Beraz, animatu, ongietorriak izango zarete!

- Zeintzuk dira zuen diru iturriak?

Udaletik eta herriko taberna gehienetatik jasotzen dugu diru-laguntza. Diru hori barik, oso zaila izango litzateke honekin jarraitu ahal izatea.

- Uste duzue Euskal Herrian ospea hartu duela Vertigo Rock-ek?

Uffff, Euskal Herrian ez, oso zaila delako: Hatortxu Rock, BBK Live, Azkena Rock eta horrelako musika jaialdiek bakarrik lortzen dutelako ospea. Baina guk uste dugu Durangaldeko eta Debarreneko herrietan nahiko ezagunak egin garela.

- Besterik?

Maiatzaren 19an Ermuko plazara gonbidatu nahi dugu jende guztia. Egundik igaroko dugu rock musikarekin. Eta gainera dohainik!!!

Dorleta Vidal



Laguntzaileak: Secretos, Infreñu, Goien, Dakota, Outomuro, Txantxiku, Hanigans, London, Ertz, Scorpio, Txalaparta, Zutik, Titanic, Lurpe, DQ, Xagua, Torrekuia, Sirimiri, Carpe diem, Beer Station, Gredos, Zutabe, Zabal eta Moloko.





- Akordeoia
- Biolina
- Biolontxelo
- Bonbardino
- Flauta
- Kantua
- Gitarra
- Gitarra elektrikoa
- Gitarra baxua
- Lengoia musikala
- Klarineta
- Panderoa
- Perkusioa
- Pianoa
- Saxofoia
- Trikitrixa
- Tronboia
- Tronpeta
- Txistua

**MUSIKA
ESKOLA**

Tel. 943 17 12 98 / 943 17 18 00 • albokamusikaeskola@hotmail.com



**CITROËN
AUTOS AMEDI**

Zarreko buelta eraikina 3, L8 pab.
Tel. eta Faxe. 943 17 04 14

ERMUKO UDALAK VII. FOLKEZ BLAI LEHIAKETARI HASIERA EMAN DIO

Lehiaketan parte hartu nahi duten folk musika taldeek 4 abestiz osatutako maketak, binilo edo CDak aurkeztu beharko dituzte maiatzaren 15a baino lehen Ermuko Kultura Sailean. Aurkeztutako abesti horietatik, bi behintzat originalak izan behar dira. 6 talde aukeratuko ditu epaimahaiak bigarren faserako eta hautatutakoek kontzertua eskaini beharko dute plazan irailaren 14, 15 edo 16an eta guztiak 400€ jasoko dituzte. Irailaren 16an lehiaketaren irabazlea zein den ezagutzera emango da eta horrek 3.000€ko saria jasotzeaz gain, Getxofolk lehiaketan parte hartzeko aukera izango du; bigarrenak, berriz, 1.500€ poltsikoratuko ditu.

JOAQUÍN SÁNCHEZ ERMUARRA SARITUA ARGAZKILARITZA LEHIAKETAN

Armeria Eskolako Ikasle Ohien Elkarteak Argazkilaritza Industrial Digitalaren VI. edizioa antolatu du. Irabazlea Durangoko Zigor Astigarraga izan da 'Ziass' lanarekin eta ikasle ohien arteko kategorian, Ermuko Joaquín Sánchez Romero izan da garaile, 'Amane' argazkiari esker. Martxoaren 24an, gainera, Ikasle Ohien urteko batzar nagusi berezia egingo da, zentroaren mendeurrena dela aprobetxatuz. Parte hartu nahi dutenek, 943203146 telefonora deitu beharko dute edo aaa@armeriaeskola.com helbidera mezua bidali.

'Gurasolagun' Ongarai eskolako liburutegian

Ermuko Berbalagunek jakinarazi duenez, gabon aurretik egin zen 'Gurasolagun' kanpainak arrakasta larregirik izan ez bazuen ere, berba-talde pare baten sorrera ekarri du. Talde bi horiek Ongarai eskolako eta San Pelaio eskolako gurasoz osatuta daude eta biak Ongarai eskolako liburutegian bildu ohi dira astearteetako 16.00etatik 17.00etara. *"Euskara mailaren arabera bereizketa egin da -dio Berbalaguneko koordinatzaile Juanmi Bravok-, izan ere, guztien interesa handia izan arren, batzuen euskara maila apala da. Beraz, talde batek 'irakasle' baten ardurapean jardungo du; bigarrena, berriz, euskara praktikatzeaz arduratuko da soilik"*. Inguruko eskoletan aritzen diren umeen guraso guztiak ekimen honetan parte hartzea gonbidatuta daude. Gainera, apirilaren 18an eta 25ean Berbalagunek 'Barreterapia' ikastaroa antolatu du doan Lobianon (19.00etatik 21.00etara) eta apirilaren 21ean, larunbata, Tolosako Txokolate Museoa bisitatu eta Donostiako izotz-jauregian patinatzeke aukera izango dute nahi duten guztiak (prezioa, 12 euro). Argibideak 639414205 telefonoan edo ermua_berba@aeek.org helbidean eskatu daitezke.

Artarrai M.T.k bi irteera burutuko ditu hilaren 24an

Elgeako mendikatea - Andarto - Orkatzategi eta Aitzulora irteera egingo dute Artarrai Mendi Taldeko kideek martxoaren 24an, larunbata. Ibilaldiak 6 orduko iraupena izango du eta irteera 8.00etan aurreikusita dago Ermutik. Egun berean baina Nafarroako Licebarren, sakan eta kanoien jaitziera egiteko asmoa dute taldekideek. Interesa dutenek taldearen egoitzara jo beharko dute ostegunetan, 19.30etatik 20.30era (Teresa Murga eraikinean). Horrez gain, taldeak II Zuhaitz Eguna egin zuen martxoaren 4an eta egun horretan grabatutako irudiekin 14 minutuko bideoa egin dute. Euren blogean dago ikusgai: artarrai.blogspot.com helbidean.



Sormen jardueren materialak biltzen dituen interesgunea Udal Liburutegian

Udal Liburutegiak sormen ekimen eta eskulanei buruzko materialak berrantolatu ditu, Ermuko Udalaren webgunean irakurri daitekeen arabera, ikusgarriagoak eta topatzeko errazagoak izan daitezke. Alezko apaingarri, feltrozko imitaziozko bitxi, papiroflexia, patchwork, mosaiko, zeramika, oihalez eta egurrez egindako eskulan, kandela fabrikazio, urtaroko apainketa, jostintza, puntu edo dekorazio osagai birziklatuei buruzko liburuak aurki daitezke interesgune honetan, hala nola hainbat aldizkari ere.



Material gehienak maileguan eska eta etxera eraman daitezke. (Argazkia: www.ermua.es)

Ferreteria/Burdindegi

ANBOTO

- * Burdindegia
- * Tresneria
- * Sarrailagintza
- * Giltzak / Aginte automatikoak
- * Ontziteria / Kopak / Mahai-tresnak
- * Opari artikulua

Zubiaurre 25, Ermua ☎ 943 17 69 76 @ fer_anboto@hotmail.com
www.ferreteriaanboto.es


optika

ITZE

✓ ENTZUMENAREN DOHAINEKO KONTROLAK
 ✓ AUDIFONOETAN AZKENENGO TEKNOLOGIA

Probaleku, 7 Tfnoa. 943 17 46 51

Txabi Arnalek liburu berria kaleratu du, 'Nikolas'




"Nikolas mutil afrikarra da. Duela hilabete batzuk bere herria utzi eta gurera etorri zen. Altua, atletikoa, eta ebanoa bezain beltza da. Hala ere, ez da igeriketa-txapelduna, heroia baizik, **BENETAKO HEROIA**". Hitz horiekin hasten da Txabi Arnal idazle ermuarrak umeentzako idatzi duen azken liburua, 'Nikolas' (Giltza editoriala, edebé taldea). Erreneriako Patxi Gallegoren ilustrazioez edertutako liburu honek 32 orri ditu. "Jada berrogei urte daramatzat haur literaturarekin maiteminduta eta ez dirudi gure harremanak iraungitze datarik duenik", azpimarratu du egileak.

Pirritx, Porrotx eta Marimotsen sarrerak maiatzean jarriko dira salgai

Euskal Birusa Kultur Elkarteak antolatuta, Pirritx, Porrotx eta Marimotots Ermuan izango dira maiatzaren 11n, ostirala. Hirukote horrek

'Zazpikoloroa' ikuskizunaren bi saio eskainiko ditu Antzokian (17.00etan eta 19.00etan), eta saio bakoitzaren iraupena 70 minutukoa izango da gutxi gora behera. Euskal Biruseko bazkideek maiatzaren 3an, osteguna, erosi ahal izango dituzte sarrerak elkartearen egoitzan, Elexosten (Erdikokale 2, 1); bazkide ez direnek, berriz, hurrengo egunean erosi beharko dituzte, maiatzaren 4an, ostirala. Sarrerek 7 euroko prezioa dute eta pertsona bakoitzak gehienez 5 erosi ahal izango ditu. Ordutegia 18.00etatik 20.00etara izango da bi egunetan. Pirritx eta Porrotx 2007ko martxoan egon ziren Ermuan estreinakoz, Korrika zela eta, eta 'Mari Motots' ikuskizuna eskaini zuten zinema areto zaharrean.



DROGETENITURRI ALDIZKARIAREN 200. ALEA

Apirilekoa gure aldizkariaren 200. alea izango da eta hori dela eta monografikoa prestatzen ari gara. Azken urteotako albisterik aipagarrienei erreparatzea emango diegu. Hortaz, datorren hilean ez ditugu kaleratuko gure ohiko atalak, agenda edo zorion-agurren atala besteak beste. Eragozpenak barkatuko dizkiguzuelakoan...

TITANIC TABERNAK IRABAZI DU ERMUKO LEHEN KAZOLATXO LEHIAKETA

Olagarroa patata aparrarekin osatutako kazolatxoak irabazi du Kazolatxoan I. Lehiaketa. Bigarren saria Txalaparta tabernak egindako kazolarentzako izan da: bakailao-tripakiak. 20 taberna baino gehiagok hartu du parte lehiaketan.

SAN PELAIO IKASTETXEA ODOLA EMATEA SUSTATZEKO KANPAINA EGIN DU

Lehen Hezkuntzako bigarren zikloko ikasleek odola ematearen aldeko kanpaina abiatu dute: triptikoak eskuz egin dituzte kalean eta eskolako gurasoen eta irakasleen artean banatzeko. Era berean, kartelak jarri eta mezu elektronikoa bidali dituzte eta odola emateko erabiltzen den autobusa bisitatu dute, besteak beste.

OUTUMURO

Kafetegia

Kafe eta tarta bereziak
Aukera handia **TE** eta **INFUSIOETAN**

Astelehenetik ostiralera 9etan zabaltzen dugu

Infreñu

Taberna

Kardenal Orbe plaza
943 174584
www.infretaberna.com



Doctor Deseoren lan berria Ermua Antzokian apirilaren 20an

Pasa den martxoaren 6an kaleratu zuen Bilboko Doctor Deseo musika taldeak 'Al amanecer seguir soñando' izena duen disko berria. Apirilaren 20an, Ermua Antzokian izango dira eta aukera paregabea izango da berrikuntza dezente dakartzan ikus-entzunezko ederraz gozatzeko.

Francis Diez abeslari eta konposatzaileak, Josi Jimenez bajistak, Raul Lomas teklatueta, Txanpi baterijoleak eta azken urteotan taldera elkartu zaien Aitor Agiriano gitarrak joleak osatzen dute 80. hamarkadan sorturiko musika talde hau.

Ibilbide luzea duen taldea da Doctor Deseo. 1987an lehen diska kaleratu zuten 'Discos Suicidas' izenekoa. 1992an 'Fugitivos del paraíso' lanarekin lortu zuten oihartzun zabala. Disko horretan dira diskoari izena ematen dioten abestia bera edo 'Corazon de tango' ezaguna. Ondoren



beste 10 disko kaleratu dituzte eta aurkeztu berri duten 'Al amanecer seguir soñando' lana, hamahirugarrena da. "Ez Dok Amairuri omenalditxo bat eginez, Badok amairu" esan nahi izan omen dute Francis Diezek dioenez. Musika lasaia eta antzokietarako "egokitua" dela aitortu du taldeko abeslariak. 10 abestiz osatutako disko-liburua da eta abestietako bat euskaraz izango da. Kirmen Uribe, Bernardo Atxaga, Edorta Jimenez eta Itziar Ziga artista euskaldunen laguntza ere izan du taldeak. Horrez gain, argazki eta margoei ere tartea eskaini

diete eta Jesus Mari Lazkano, Fernando Roscubas, Iñaki Saez eta Cristina Alfaroren lanak ageri dira eskuliburuan.

Taldeko kideek diotenez, disko honekin ametsak sortzeko, irudikatzen eta imajinatzen aukera eskaini nahi dute. "Desio eta ametsen mundua musika, margo eta argazkien bitartez".

Martxoaren 16an Elorrioren hasi eta makina bat herri eta hiritan izango dira disko berria aurkezten, Bilboko Arriagan eta Donostiako Victoria Eugeniaren, besteak beste. Halaber, Gasteiz, Iruñea,artzelona edo Madrilan izango dira. Mexikon ere diskoren aurkezpena egiteko asmoa dute.

Asier Ibaibarriaga

Enter
INFORMÁTICA
SALMENTAK / IRAKASKUNTZA / ZERBITZU TEKNIKOA
VI Centenario 19, behea
Tel. 943 17 90 37
e-maila: enter-i@arrakis.es



solozabal
tabakoak

torrekua 1
tel./fax: 943 17 07 33



Jostailuzko 3.000 kamioi eramango dira Aldundira

Bizkaiko Foru Aldundiari saihebiderearen etena dela-eta konponbideak eskatu nahi dizkio Facebookeko 'Ermua Opina' taldeak. Horretarako, datozen egunotan Ermua eta Mallabiko hainbat tokitan jostailuzko kamioiak jaso eta gero, Aldundiaren egoitzaren aitean utziko ditu.

'Ermua Opina' foroak hasieratik parte-hartze inportantea lortu badu ere, saihebiderea egingo ez zela ezagutzera eman zenean lortu zuen bere gorakada handiena. Horren harira hainbat ekimen eraman ditu aurrera taldeak. Idatzi bat egitea izan zen lehenengoa. Idatzi horretan taldea zein zen eta saihebiderearen arazo-arentzako konponbideak proposatzen ziren. Hori guztia Udal batzarrerara eraman zuten hainbat ermuarrek duten iritzia entzun zezaten politikoei.

Baina ez da hor geratu Ermua Opina taldeak saihebiderearen kontura egin duena.

Orain 3000 jostailuzko kamioi batzeko asmoa du.

Izan ere, batz besterik eguneroko Ermuko errepidetik igarotzen den kamioi kopurua hori delako. Horretarako, martxoaren 15ean Sallabenteke parkean informazio puntu bat ipini zuten Ermua Opina lagunek. Bertan egitasmoaren berri eman zitzaizkien hurbildu ziren ermuarrei.

Saihebiderearen aldeko manifestaziora joan eta gero, hainbat ermuarrek pentsatu zuten herriak sufritzen duen arazo honen inguruan erabaki gutxi hartzen lagatzen zaiela herritarrei. Manifestaziorako leloa politikoei egin zuten eta pankarta



Udal ordezkariak eraman zuten; herritarrek ez zuten inolako aukerarik izan. Gauzak horrela, herritarrek adostu eta aurrera eraman zezaketen egitasmo bat martxan jartzea pentsatu zuten. Gizarte mobilizazioa bultzatzea zen helburua, politikoen atzetik joatea ez zen nahikoa.

Kamioien iskanbila

Facebookeko taldean sortu zen ideia. Ermuarrek pairatzen duten arazoa Aldundiak ikus zezan nahi zuten taldeak, baina nola eraman eguneroko 3000 kamioiek sortzen duten iskanbila Bizkaiko Foru Aldundira? Zerbait sinbolikoa egitea pentsatu zen orduan, eta jostailuzko 3000 kamioi Foru Aldundiren aurrera eramatea erabaki dute. Horre-

tarako ermuar eta mallabitar guztien laguntza eskatzen dute. Kaltxango AEKn, San Lorenzo eskolan, Dskaro arropa dendan eta Mallabiko farmazian egingo da kamioi bilketa. Ez da egongo epe mugarik, 3000 kamioiak batu arte mantenduko dira bilketa puntuak.

Kamioi guztiak lortutakoan egitasmoan parte hartu nahi duten guztien artean idatzi bat egingo da eta kamioi guztiak kokatuta Aldundiaren aurrean irakurriko da.

Protestaren ondoren, kamioekin zer egingo den parte hartzaile guztien artean erabakiko da. Momentuz behar gehien dutenei ematea da aurreikusten den ideietako bat.

Ane Saénz

Ermua Opinak, Facebook-en sortutako taldeak, dagoeneko 581 kide ditu eta gehiago egiteko asmoa du. Taldera batzeko 'Galdetu taldera batzeko' botoia sakatu besterik ez duzu behar. Talde honek ez du zeinu politikorik, agian horregatik lortu du hainbeste ermuarrek bere iritzia foro honetan plazaratzea. Ermuko eguneroko bizitzaz jardutea da asmoa, betiere errespetutik eta besteenganako begirunearekin. Badirudi orain arte lortu duela, eguneroko-eguneroko iritzi berriak agertzen direlako bere orrialdean. Jorratzen diren gaiak anitzak dira. Besteak beste, gazteen lokalen ingurukoak eta txakur arraza arriskutsuen kopuruaren gorakada dira azken aldian bolo-bolo dabiltzanak.

SAGARDUI
poltsak

Zubiaurre, 29 - Ermua - 943 170305

FOTOKOPIAK
KOLOREZKO FOTOKOPIAK
HANDIPENAK - TXIKIPENAK
PLANOAK - AZALEZTAPENAK
FAX PUBLIKOAK
INPRIMAKETAK KAMISSETATAN

Komentukua, 6 behea 48260 ERMUA TEL. / FAX 943 17 42 89

OSASUNA • ESTETIKA EDERTASUNA

Ille-apaindegi bat baino gehiago!!

Egokitutako burua garbitzeko konketa

943 17 28 09 - Goienkale 12

VALENTIN MUGARZA

- *Nola gogoratzen duzu haurtzarora?*

Baserrian eta nekazaritzari lotuta. Derion eta Fraisoron, lanbide heziketan Nekazaritzako bost urte egin nituen anaiak animatuta. Gero Palencian basogintzako ingeniari egin nintzen. Harrezkero mundu honetan ibili naiz eta gaur egun Gipuzkoako Foru Aldundian nago.

- *Basozaina zara?*

Ez, ni teknikoa naiz. Bulegoan diru-laguntzak kudeatzen eta Europak Gipuzkoan bultzatu duen proiektu batean dihardut, LIFE+Biodibertsitatea eta Zuhaitz Motzak izenekoa. Pago motzak katalogatu eta zaintzeko lanetan ari gara. Sasoi batean, egurretarako erabiltzen zen zuhaitz horien egurra, baina gaur erabiltzen ez direnez, denborak ihartu edo haizeak bota egiten ditu. Ingurumenean eta paisajistikoki duten garrantziaz aparte, biodibertsitateari dagokionez, oso inportanteak dira zuhaitz horiek.

- *Zer da lan honetan gehien estimatzen duzuna?*

Ordutegi malgutasuna eta lan ezberdinak egiteko aukera; mendira irteera asko egiten dut bulegoko lanaz aparte.

- *Eta gutxien estimatzen duzuna?*

Egia esan ez dauka gauza txarrik; behar bada, Donostiaraino joan beharra.

- *Zelan ikusten duzu basoen etorkizuna?*

Krisia, egurraren prezioa



Mallabitarra, Elgetzu baserrikoa, zortzi neba-arreben artean gazteena. 42 urte ditu eta argazkia atera dion Aritz eta Elorriren aita da. Basogintzako ingeniari teknikoa da.

behera doala, gaixotasunak eta abar, pinudiak galtzen jango dira eta bertakoak hartuko du indarra. Lan asko eskatzen dute 'Insignis' pinuek, eukaliptoek eta hone-lako basoek. Hauek lehen eta orain baserritarrek mantentzen dituzte, baina gaur egun gero eta gutxiago dira hauek ere eta berez ernetzen datoz bertako espezieak.

- *Baso-sartzen ibili zara azken hilabeteetan...*

Lehen pinudia zen gure

lursail batean 1500 bat pago, urki, lizar, gereziando, gaztainondo, intxaurre, astigar eta abar sartu dit.

- *Espezie tropikalik sartu duzu? Euskadi Tropikal!!*

Sartu ez baina Jakoba Errekondok esaten du palmera pagoa bera baino bertokogoa dela. Sasoi batean Euskal Herrian beste klima bat egon izanaren zantzuak badaude itsasertzean. Getarian adibidez artelatzen baso bat dago, erdaraz 'alcornoque'.

- *Noiztik argazkigintzarako afizio hori?*

Ba, 20 bat urte. Orain digitalarekin 30.000 bat argazki aterako nituen, baina ez dira asko, eh! Neure umei jende ezagunarekin argazkiak ateratzea gustatzen zait: bertsolari, kantari, pilotari eta abarrekin.

- *Mallabiko Argazki zaharra atala zuk prestatzen duzu Drogeteniturrirako...*

Norbaitek argazkiren bat badu eta ez badaki izenik, datarik, galdu egiten dira argazkiok. Aurpegiari izena jartzea gustatzen zait; bere historia dute argazkiek.

- *Ze musika mota entzuten duzu?*

Gatibu, Su ta Gar, Benito Lertxundi, Metallica...

- *Bidaia bat?*

Parisera bertako lorategiak ikustera eta Alemaniara Ohian Beltza ikustera.

- *Bizio bat?*

Landareak; denak, bertakoak, tropikalak...

- *Zerk ateratzen zaitu zeure onetik?*

Euskararen kontrako erasoek, edozein eratakoak dira ere.

- *Bitxikeriaren bat?*

Bueno, egunerokoa idazten dudala, egunero falta barik 1995etik. Eskuz idazten dut, ez ordenagailuan. Urte hasieran erosi eta noizbait ezin izan badut idatzi, beste edozein paperean idatzi izan dut gero ahal dudanean egunerokora pasatuz.

Eneritz Aranburu

Zure publizitatea...

drogeteniturrri
aldizkarian

943179350
688 632876
Erdikokale 2, 1
drogeten@gmail.com



PUB YOMY

**Zubiaurre
kalearen
bihotzean**



Libe eta Ainhoa, Euskadiko txapeldunak mailu-jaurtiketan

Oraindik 15 urte bete ez dituzten arren, Libe Solozabal eta Ainhoa Izagirre ermuarrak Euskadiko txapeldun eta txapeldunorde dira hurrenez hurren oso ezaguna ez den atletismoaren diziplina batean: mailu-jaurtiketan. Lolo Garcíak entrenatzen dituen neskok gogotsu eta indartsu daude.

Otsailaren 25ean Euskadiko Jaurtiketa Luzeen txapelketa burutu zen Bilbon. Anaitasuna Ikastolako ikasle diren Libek eta Ainhoak 3 kiloko mailuarekin egin zuten saioa eta euren kategorian garaile izan ziren. Libek 24,81 metroko jaurtiketa egin zuen eta Ainhoak, berriz, 23,51 metrokoa. *“Egia esan kadete mailan parte hartu genuen bakarrak izan ginen, baina garaipena oso pozgarria izan zen, gure marka pertsonalak hautsi genituelako”.*

Ordutik hona, hala ere, euren markak berriro ere gain-

ditu dituzte eta orain Ainhoak (27 metro), aurrea hartu dio Liberi (24,82 metro). Oraindik asko dute ikasteko baina gustura egiten dutenez, aurrerapausoak ikaragarriak direla dio entrenatzaileak.

Kirolari hauek azaldu digutenez, heldulekua duen pisu borobila da mailua. Jaurtiketa egiteko, atletak mailua bi eskuekin hartu behar du eta babes-kaiolaren barruan kokatuta, hiruzpalau bira oso egin behar ditu bere gorpuzaren inguruan, indarra eta abiadura egokia hartzen duenean jaurtigaia botatzeko. Teknika berezia eskatzen



duen kirola da eta ermuarrak lehengo eta bigarren bueltak ematen ikasten dabilta oraindik ere. *“Jendeak pentsatu dezakeenaren kontra, kirol honetan indarra ez da garrantzitsuena: bueltak emateko trebezia, koordinazioa eta teknika dira gakoa”*, diote.

Kirolari amorratuak

Mailu-jaurtiketa infantil kategoriarra heldu arte ez da lantzen eta hori izan daiteke kirol hau jende gutxi praktikatzaren arrazoietakoa bat, euren iritzi. Baina euren gustukoa dute eta jarraitzeko asmoa dute, nahiz eta entrenatzeko dituzten baldintzak

nahikoak ez diren. *“Betiondon daukagun mailua plastikozkoa da, pisu txikia du eta ez dugu kaiolarik, horregatik, Durangoko Landako kiroldegira joaten gara ia astero”.*

Bizitza erdia daramate kirola praktikatzeko, (LHko 3. mailatik aurrera Libek eta 4. mailatik Ainhoak) eta mailu-jaurtiketari ekin aurretik, beste kirol batzuetan aritu dira, hala nola krosean eta martxan. Kilometro bat eta 3 kilometro arteko ibilbideak egin dituzte azken kirol horretan eta 2010ean Ainhoak urrezko domina lortu zuen Bizkaiko eskolen arteko txapelketan.

Dorleta Vidal

Zer dio Lolo García entrenatzaileak?

“Fisikoki sasoiaren daude eta, oso altuak ez diren arren, indartsuak dira eta bizitasuna dute. Hazterakoan, euren ahalmenetara egokitzen den diziplina bilatu nahi izan diet bi helbururekin: besteengan nabarmentzeko eta, batez ere, motibatuzko. Egia esan, harrituta utzi nau zein gogotsu hartu duten biek mailua. Aurretik, Libe krosean oso ondo moldatzen zen eta Ainhoa jaurtiketetan nahiko ondo ibili izan da eta mailuak poztasun handia emango diola esango nuke, asko hobetu delako oso denbora gutxian”.

T XALAPARTA ABERNA	<ul style="list-style-type: none"> - Itsaskabra pudina. - Txipiroiak. - Piper beteak: okela edo onddoak. - Fritoak: urdaiazpikoa edo onddoak. - Redondo saltsan. - Sagar tarta. - Gazta tarta. - Tortila patata...
Eta asteburuetan pintxoak, afariak eta bokatak!	
Erdikokale 13 (Ermua)	ENKARGYAK 943 030 299

komunitateak
aseguratuak

San Pelayo

aholkularitza
fiskal eta juridikoa

Tel./Fax. 943 17 15 65 / 943 17 25 04
San Pelayo 6-A (Eroski gainean) 46 P.K. - Ermua

Quetzal
 Arropa, bitxiak,
 opariak... zer ez!
Goienkale 9 · ERMUA
943170065

eta punto...

Azken aldian herrian badago sarrri entzuten dudan lema bat, 'Saihesbidea eta punto'. Punto horrek badu bere puntua. Bukaera zakar hori entzun edota irakurtzen dudan bakoitzean, ez zait bakarrik saihsbidea etortzen burura.

Esaera zahar asko daude munduan, hizkuntza eta kultura desberdinetan non denek esaten duten gauza bera; askotan hobe dela ahoa ixtea, bestela nahigabeen norberak bere burua salatzen bukatzen du, eta hau da, nire uste apalean, udal agintariei gertatu zaiena.

Ez nahiz ni orain saihsbideari bueltak ematen hasiko, nire auto kutsakorrarekin egiten dudan bezala... baina herriari begirada txiki bat eginez PUNTO batzuk datozkit burura.

ERMUKO ERREKA GARBI ETA PUNTO

Hona hemen gure izatearen oinarria, ura, hain simple eta magikoa. Gure herrian etxeen azpitik hain zikin eta ezkutuan doan EGO

ibaiari saiatsen naiz ni xarma bilatzen, baina kiratsak ez dit uzten. Nork ez ditu ikusi argazkiak? Nork ez ditu entzun gure nagusien kontuak, gure herriko Zubiaurre kalean karramarro eta amuarrainak hartzen zituztela, esaterako?. Orain errekarari darion gauza bakarra kutsadura da, baina noski gure etxeko txorrotetatik ura doa, garbi-garbia... nondik ote??

ERMUKO ZERUA GARBI ETA PUNTO

Teknologiak bizkarra eman eta herriko farolak itzaltzen dituztenean ikusten ditut nik izarrak, goza dezaket nik gaua, sentitu dezaket ilargia.

Mende hasieran, oraindik hain ederra zenean gure herria, baten batek jarri izan balu farola bat zerua argizatzen, barre galantak egingo zizkioten lagunek ea zeren bila ari zen han goian galdetuz... ja, ja.

Orain ehunka dauzkagu herrian eta uste dut ez diola inori inolako graziarik egiten, gaua ez ikusteak ezta hark sortzen digun faktura potoa ere.



Endika Fernandez

ZARATA SOINU BIHURTU DADILA ETA PUNTO

Guri sorrarazten digun sentsazioak markatzen du soinu eta zarataren arteko desberdintasuna. Herrian dauden kotxe, tren eta asma-kizun berriek naturak dohainik oparitzen dizkigun soinu askori lekua kendu diote.

Eta oraindik entzun beharra daukat Ermuak hobera egin duela azken hamarkadetan! Esan diezadate niri zertan.


Azkenean, nik alde egin egingo dut eta punto!

*Herriari begirada bat eginez,
puntu batzuk datozkit burura*



TXINDURRI
TALDEA
Tokian
tokiko


PRO



- ARRAINDEGIA
- ITSASKIAK
- ARRAIN FRESKOAK ETA
IZOZTUAK

ESKAINZA BEREZIA
OSTIRALERO

Zubiaurre, 21 baxua
Tfnoa. 17 16 96 (despatxua)
" 17 24 33 (etxea)
Merkatu Plaza, Tfnoa. 17 41 59
ERMUA



TOLDOS Y PERSIANAS ORBE

- MUNTAIA ETA KONPUNKETA
- MOTORIZAZIOA
- PERTSIANA DEKORATIBOAK
- PERTSIANA BILGARRIAK
- SEGURTASUN PERTSIANAK
- MOSKITERAK
- ESTOREAK
- GORTINAK

TAILERRA: Zearreko buelta, 2
Tel. 943 17 66 34
Tel. mugikorra 630 01 13 41
48260 ERMUA (Bizkaia)

ERAKUSKETA: Karabixa, 1
Tel. 943 17 98 60
48260 ERMUA (Bizkaia)

0 eta 8 urte bitarteko umeentzako moda eta puerikultura

mimitos

Zapatak, pijamak,
lentzeria, aulkiak,
sehaskak, tronak...
behar duten guztia!

*Eta gainera 'Hello Kitty'-ren
artikulu mordoa!*

Probaleku 4, Ermua · ☎ 943 033 830



Martxoaren 24an
Zorionak aittitte zure familiaren partez. Patxo handi bat eta segi horrela!!



Martxoaren 27an
Zorionak Aitzol! Oso ondo pasa zure egunean, etxekoan partez. Muxu handi bat!!



Apirilaren 8an
Eiderrek hiru urte beteko ditu. Zorionak eta jarraitu betiko sorgina izaten. 3 musu handi familiaren partez.



Martxoaren 12an
Zorionak Eder zure 2. urtebetetzean etxekoan partez!! Musu asko



Martxoaren 1ean
Ongi etorri Telmo!!!



Martxoaren 30ean
Zorionak Julene!! Musu handi bat Ibai, ama eta aitaren partez!!



Martxoaren 28an
Zorionak Maite familia guztiaren partez. Musu bat eta ondo pasa zure egunean.



Martxoaren 26an
Zorionak Lierni, ondo-ondo pasa eta musu bat Jone eta Aitzolen partez.



Apirilaren 13an
Zorionak Ibai!! Musu handi bat Julene eta etxekoan partez.




Martxoaren 22an
Zorionak udaberriko lehen karduari. Ondo pasa zure egunean lankideen partez.



Martxoaren 29an
(Jone) eta apirilaren 1ean
(aita)
Zorionak bioi eta musu handi bat Aitzol eta amaren partez. Ondo pasa!

Drogeteniturriko 200. alea dela eta, datorren zenbakian ez dugu zorion-agurren atalik izango. Hurrengo zenbakirako azken eguna: Maiatzaren 16a



Euskara eta euskaltegia egin biak zureak



Teresa Murga, 2. solairua
Tel. 943 17 09 25

Proba-Leku
Neopaindegia - Estetika



Probaleku 3, 1A
Tel. 943 17 05 42

J. LUCAS





PINTURA EN GENERAL

630 22 51 36 / ermua@hotmail.es

- Ermuko
- Merkatarien
- Elkarteko
- kidea.
- 3 hilean
- ordaindu
- interes barik



URRETA burdindenda

- * Etxea
- * Giltzak
- * Tresneria
- * Zerrailgintza
- * Brikolaia
- * Kit altzariak
- * Rielak

Zeharkalea 8 Tel: 943 17 65 61 **ERMUA**




Zubiaurre 14
Telef. 943 17 28 88
48260 ERMUA

EGUZKILORE

MALLABIA 1982

Argazki hau 1982ko abuztuaren 29an aterata dago Mallabiko frontoian.

Ezkerretik eskuinera hauek agertzen dira:

Sabino Eguia,
Miguel Angel Olalde,
Bixente Azagirre,
Agustin Unamuzaga,
Aitor Aldapa,
Anton Totorikaguena,
'Artadialde'
eta Anton Abendibar



ERMUA 1943



Pepito Blanco pintxoria,
Félix Izagirre eta
Alejandro Izagirre, gorbata eta abarketa zuriekin,
dotore askoan paratuta erretratatzaileari begira.

* Aurreko aleko Ermuko argazkian,
Maria Areitioaurtena zen andrakumeari
Maria Zenarruzabeitia izena jarri genion,
abizenon familiartekotasunak biak trukatu eragi-
nez itxura denez.

uriarte asesores ✓

Aholkularitza fiskala
eta lege aholkularitza

Komentukoa 3 behea · Tel. 943 179 040 · Faxe 943 179 197
48260 · Ermua · Bizkaia

Pub SCORPIO



Zubiaurre, 21
ERMUA


**Adinak eta garaiek alde batetik eta norberaren gustuek,
zaletasunek eta aldarreak bestetik,
gure jai-egunak nola bete agintzen digute.**

Zuk zer egiten duzu aisialdian?

Normalean bueltatxo bat ematen dut edo zahar-etxera joaten naiz kartetan jolastera. Lehen dantza ere egiten nuen, baina adinak ez du barkatzen! Ermuan badago gauzak egiteko aukera eta gure adinekoentzat bidaiak antolatzen dituzte, besteak beste, baina orokorrean badaude lekuak ondo eta gustura egoteko.



Lupicinia Moya, 80 urte



Zapatuetan kontu gutxi egiteko aukera izaten dut Ermuan. Futbol partida ez badut, lokalean geratu edo Elgoibarrera joaten gara; hori izaten da ia nire adineko gazte gehienon plana. Ermuan oso gauza gutxi egin daitezke eta lokala ez baduzu..., ez dago ezer egiteko.

Jorge Mateos, 16 urte



Mendira joan eta arratsaldean lagunekin zerbait hartzea izaten da nire zapatuetako plana. Zerbait berezia egin nahi dugunean, mendi irteera apur bat luzatzen dugu edo kirolen bat ikustera joaten gara. Hala ere, uste dut Ermuan gauza kultural eta interesgarri nahikoa egiten dela zapatu arratsaldeetan.

Porfirio Mateos, 47 urte

Erosketak egin eta Eibarren bueltatxoa egiten dut: El Corte Inglesera joan, kafea hartu, umearekin egon... Ermuan plana egin nahiko bagenu, zinera edo antzerkiren bat ikustera joango ginatke, baina umearekin zaila izaten da. Ermuan aukera gutxi dago: taberna asko dago baina gauza gutxi egiteko.



Rosa Bercianos, 39 urte

Zapatuan lagunekin parrandan irteten naiz: hirurak arte egoten gara Ermuan eta ondoren, Eibarrera joaten gara. Dena den, beste aukera batzuk ere badituzte: lokalean egon, parkean litxarriak jan edo zinera joan. Zinea ordezko plan aproposa da momentuko pelikula eskaintzen dituelako.



Izara Rivas, 18 urte



Arratsaldean Elgoibarrera joaten gara. Hamarrak aldera, Ermura bueltatu, telebistan ematen duten partidua ikusi, afaldu, eta ordu bietan Eibarrera joaten gara. Bertan inguruko herrietan baino parra gehiago dago. Gainera, diskoteka bat egoteak mesede egiten dio. Ermuan gaztetxe edo diskotekaren bat zabalduko balitz, egoerak hobera egingo luke.

Boni Edjang, 24 urte

Leire Elustondo eta Nora Mateos

akerlei
HEZIKETA-ZENTROA

Bizkaia etorbidea 5
48260 - Ermua
943 17 66 32
akerlei@akerlei.com

'ENGLISH FUN'
Kanpamentua
Formigalen

8-14 urte bitarteko umeentzat
Uztailaren 1etik 14ra

Eman izena!!

Bar London
Komentukua 2, Ermua
Tlf: 943173312

ZINEA

1etik 2ra:
'Albert Nobs'

7tik 9ra:
Zehaztu barik

14tik 16ra:
Zehaztu barik

21etik 23ra:
Zehaztu barik

28tik 30era:
Zehaztu barik
Hainbat ordutegi.
Ermua Antzokian.
Sarrera: 4,5€

ZINE-KLUBA

Hilak 5:
Zehaztu barik

Hilak 12:
Zehaztu barik

Hilak 19:
Zehaztu barik

Hilak 26:
Zehaztu barik
20.30ean.
Ermua Antzokian.
Sarrera: 3,5€

UMEENTZAKO ZINEA

Hilak 1:
'Aita, zonbia naiz'



Hilak 8:
Zehaztu barik

Hilak 15:
Zehaztu barik

Hilak 22:
Zehaztu barik

Hilak 29:
Zehaztu barik
17.00etan.
Ermua Antzokian.

MUSIKA

Hilak 20:
Kontzertua: Doctor Deseo. 22.15ean.
Ermua Antzokian.
Sarrera: 15€.

Hilak 21:
Erromeria:
Luhartz taldea.
(Euskal Jaia).
19.45ean. Orbe Kardenalaren plazan.

Hilak 28:
Kalejira:
Ermuan kantuan.
12.30ean. Orbe Kardenalaren plazatik.

DANTZA

Hilak 21:
Txindurri taldea.
(Euskal Jaia).
19.00etan.
Orbe Kardenalaren plazan.

Hilak 22:
Euskal Jaia:
Helduen saioa
(13.00etan).
Umeen saioa
(17.00etan).
Orbe Kardenalaren plazan.

ERAKUSKETAK

Hilaren 3tik 25era:
Argazkiak:
'Lotaizunaren harresiak'.
Sonia Rueda.
18.00etatik
20.00etara.
Lobiano Kultur Gunean.

BESTELAKOAK

Hilaren 28tik 2ra:
Artikuntzaren azoka.
Orbe Kardenalaren plazan.

Patxi López

ANTZERKIA

Hilak 27:
'Exitus', Titzina
Teatroaren eskutik.
22.15ean.
Ermua Antzokian.
Sarrera: 10€

**Harategia**

M. LAZKANO

BERTOKO OKELAK
Geure Baserrian
Hazitako Txalak

GEUK GIZENDUTAKO
ABELTZANTZA
Merkatua, 36-37 zbk.k
Tfnoa. 943 17 05 84
Ermua

OPTICA J. CASADO

Lenteak
Audifonoak
Graduatutako Antiajuak
Eguzkitako Antiajuak

Kantabria, 2
Tfnoa. 17 33 57

ERMUA

MIGUEL Harategia

TXORIZOAK
ODOLOSTEAK

Probaleku, 3
☎ 17 05 63
ERMUA
(Bizkaia)

hamburguesería TITANIK

Pintxo dastaketa
poteoan

Kantabria 2 • Tlf: 17 67 83

ATE IREKIAK

MUndu bat
nahi beste aukera



Enpresagintza Fakultatea

Oñati **APIRILAK 21** larunbata, 11:00

Irun **MARTXOAK 31** larunbata, 11:00

APIRILAK 28 larunbata, 11:00



Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea

Eskoriatza **APIRILAK 19** osteguna, 18:00

Inskripzio epea zabalik

902 110 436

www.mondragon.edu/prest



UGARO

AHOLKULARITZA FISKALA,
JURIDIKOA
ETA KONTABILITATEKOA



Mutua General de Seguros

Fernando Orbe. ekonomista
Juan Jose Gorritxategi. abokatua

Zubiaurre, 27
177 postakutxa

ugaro@ugaro.com • forbe@ugaro.com

943 17 43 44

Faxa. 943 17 54 58

NATURHOUSE
 "Adituak gara ondo elikatzen irakasten"
 AINARA IRIONDO ANSOLA
 Giza elikaduran eta Dietetikan Diplomatu
 Komentukua 1, behea. 943 17 63 72

OINAK LEIRE MAYORA
PODOLOGOA
 Erdikokale 1, 1. A
 48260 Ermua
 ☎ 943 17 47 44

Irale
 hortz klinika
Leire Irazu Garitaonandia
 • Ortodontzia • Aho zirujia
 • Pedriodontzia • Inplanteak
 • Odontologia orokorra
 Zeharkale 8, behea 943 17 71 34
 www.irale.com

Yoga eskola
 Arnasketa eta ariketa fisiko egokiak
 Erlaxazioa eta meditazioa
 Osteopatia eta bertebrologia
 Anginak sendatzeko masajea

 Sanatana Dharma
 San Roke 24, behea
 943 74 85 93
 685 722131 (Idoia) - 639 652729 (Lourdes)

san pelayo
 clínica dental hortz klinika
 Inplanteak
 Ortodontzia
 Periodontzia
 Hortz-zuriketa / Estetika dentala
 Odontologia orokorra
 Protesiak
 P.A.D.I. - I.M.Q. - SANITAS
 San Pelayo 5, 1. Olatz Garcia Arregui
 Ermua (Bizkaia) 943 17 04 04

OSASUN GIDA

NEREA IÑIGUEZ
HORTZ KLINIKA
 - Aho eta inplante kirurgia
 - Hortzetako protesiak
 - Hortz estetika
 - Ortodontzia
 - Odontopediatria
 - Endodontzia eta odontologia kontserbadorea

 Hortz klinika berritu eta handitu dugu
 San Inazio 4 Tel.: 943 030 512
 Ermua niklinika@gmail.com

NATURA
 Cristina García Pérez
 Belar-denda eta dietetika
 • Elikagai biologikoak
 • Terapia naturalak
 • Naturopatarekin kontsultak
 • Masajeak
 • Dietistarekin kontsultak
 • Kosmetika biologikoa
 Zeharkale 12 behea esk. · ERMUA
 943176594/naturcriss77@hotmail.com

fisioterapia
 eta osteopatia
 zentroa
aitziber
 Aitziber Fernández
 Telf. 943 17 60 95
 629 88 70 89
 Sexto Centenario 13,behea
 48260 ERMUA (Bizkaia)

Osasun gidan agertu nahi baduzu, deitu 943 17 93 50 edo 688 63 28 76 telefonora